

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

4/2017 Foru Agindua, urtarrilaren 19koa, behin betiko eta partez onartzen duena Iruraiz-Gaunako planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren espedientea; aldaketa puntuala 199. eta 200. artikuluei buruzkoa da, lurzoru urbanizaezinari eta Jauregiko UE2 egikaritze unitateari buruzkoa

I. AURREKARIAK

Lehena. 2014ko azaroaren 26ko bilkuran, Iruraiz-Gaunako Udalak erabaki zuen hasierako onarpena ematea arau subsidiarioen seigarren aldaketaren espedienteari, zeina Jauregiko UE2 eremua zedarriztatu eta nekazaritzako biltegitarako eraikuntzen hegalen garaierari eta eraikigarritasunari buruzkoa baitzen, eta orobat erabaki zuen jendaurrean jartzea espedientea, eta hala egin zuen iragarkiari argitaratuz 2014ko abenduaren 19ko ALHAOn (144. zenbakia) eta Diario de Noticias de Álava egunkarian (2014ko abenduaren 22koa), eta udalerriko administrazio batzarrei jakinarazpena igorri.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean edukitzeko epearen barruan 86 alegazio aurkeztu ziren, guztiak ere nekazaritzako biltegien parametroei buruzkoak, eta udal arkitekto aholkulariak egin zuen haiei buruzko txostena; Udalak, 2015ko abenduaren 11n, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, alegazioetako bat partez onartuz eta hura Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeari igortzeko aginduz.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, ekainaren 9ko 3/2016 bilkuran, Arabako hirigintza planeamenduaren atalean, erabaki zuen ez eragozpenik agertzea Iruraiz-Gaunako arau subsidiarioen seigarren aldaketaren espedienteari.

Laugarrena. 211/2012 Dekretuak 13. artikuluan xedatzen duenaren konforme (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), arau subsidiarioen aldaketaren aldeko ingurumen txostena eman zen 2015eko azaroaren 17an.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean 2016ko uztailaren 22ko sarrera data eman zitzaion idazkiaren bidez, Iruraiz-Gaunako Udalak Iruraiz-Gaunako udalerriko arau subsidiarioen seigarren aldaketaren espedientea igorri zuen behin betiko onartua izan zedin. 2016ko abuztuaren 10eko data daraman idazkiaren bidez, eskatu zitzaion konpontzeko igorritako agirietan hauteman ziren zenbait huts. Iruraiz-Gaunako Udalak, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorraren 2016ko azaroaren 14ko sarrera data daraman idazkiaren bidez, eskatutako dokumentazioa igorri zuen.

Seigarrena. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betez, espediente horren inguruko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak, urtarrilaren 11ko 1/2017 bilkuran.

II. OINARRIAK

Lehena. Espediente honen xedea bikoitza da:

Alde batetik, Iruraiz-Gaunako Udalak sustaturik, proposatzen da arau subsidiarioen 199. eta 200. artikulua aldatzea, biak ere lurzoru urbanizaezinaren gainekoak, aldatzearen hirigintzako eta eraikuntzako zenbait parametro, nekazaritzako biltegiei eta lurzoruarekin lotutako nekazaritzako abeltzaintza ustiatzeko eraikuntzei buruzkoak eta lurzoruarekin

lotu gabeko abeltzaintzako ustiapenei atxikitako eraikuntzei buruzkoak eta horien pareko parametroak dituzten gainerako eraikuntza erabilera eta jardueri buruzkoak. Gainera, jendaurrean eduki diren artean aurkeztutako alegazioei erantzunez, ezabatu egiten dira autokontsumoko jardueri lotutako eraikuntzak lurzoru urbanizaezinean baimendutako jardueren artetik.

Beste alde batetik, partikular batek sustaturik, aldatu egin nahi da Jauregi herriko UE-2 egikaritze unitatearen zedarriztapena.

Bigarrena. Agiri teknikoak justifikatu egiten du aldaketaren beharra, alde batetik, hirigintza araudia nekazarrien beharrezan egokitzearen, makineria eta biltegiatze prozesuak modernizatu egin direnez gero, hartara jarduera horiek sustatuz eta faboratuz, eta, beste alde batetik, Jauregiko UE-2 egikaritze unitateari dagokionez, hura lurzoruaren jabetzaren egituraren arabera aldatzearen eta haren hirigintza eraldaketa faboratzearen.

Hirugarrena. Espedientea jendaurrean eduki zen bitartean, 86 alegazio aurkeztu ziren, eta agiria idatzi zuen arkitektoak egin zuen haiei buruzko txostena; sei eredutan bildu dira, zeren haietako asko berdinak baitziren nahiz eta pertsona ezberdinek sinatuak izan.

Aldaketa idatzi zuen arkitektoak egindako txostenean jasotzen diren arrazoiekin bat gatoz; arrazoi horiek izan dira nekazaritzako biltegien garaierera eta eraikigarritasunari buruzko alegazioak ezesteko Udalak baliatu duen oinarria.

Agiri teknikoaren memorian jasotzen diren arrazoiak, eta bai ere alegazioen txostenean jasotzen direnak, bat datoz planeamendurako ahalari eta hari dagokion ius variandi delakoari buruz jurisprudentziak ezarritako betebeharrekin, alegia, arrazoikotasunaren irizpideen arabera balia dadila, betiere interes orokorren alde.

Laugarrena. Aitzitik, 199. artikulua dela-eta, lurzoru urbanizezinen zona bakoitzean zilegi diren jarduera eta erabilerei buruzkoa baita, haren aldaketari buruz adierazi beharra dago ezen aurkeztutako agirian ez dagoela jasota aldaketaren justifikazioa, eta, beraz, aditu beharra dagoela idazlari taldeak alegazioei erantzuteko idatzitako txostenean jasotzen dela. Txosten horretan, proposatzen da onestea zenbait pertsonak eta administrazio batzarrek aurkeztutako alegazioa, autokontsumorako eraikuntzak ezarri bidea irekiko bailitzaieke nahi ez diren erabilerei.

Bada, horretaz ari garela, lurzoru urbanizaezinetik erabilera bat ezabatzea, berez, egiturazko antolamenduaren xedapen bat da, eta ezin da egin udalak baliatu duen bidetik, zeren xedapen hori ez baitzegoen jasota hasierako onarpena eman zitzaion agirian, eta, beraz, ezin da erabili alegazio bat, aldaketa espedientearen xedeaz bestekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 104. artikuluan (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa) ezarritako legezko prozedura urratu eta planeamenduaren aldaketa puntualak egiteko. Kontuan hartu behar da, xedapen hori ezabatzeko, ez hasierako onarpenik izan dela, ez jendaurrean jartzeko izapiderik bete dela, ez ingurumen ebaluaziorik igaro duela, eta, beraz, prozedurazko iruzurra dela Arabako Foru Aldundiari igorritako dokumentu teknikoan behin betiko onartzeko sartzea, eta, beraz, onartezina.

Bosgarrena. Azkenik, Jauregiko UE2 egikaritze unitatearen aldaketa dela eta, aditzen da ez dagoela behar bezala justifikatuta eta hirigintza legediaren kontrakoa dela hainbat arrazoi-rengatik:

Lehenik, zeren dokumentu teknikoak, egikaritze unitatearen ber-zedarriztearen aurretik, ez baitu egiten aldaketak erasandako hiri lurzoruaren kategorizazioaren analisi justifikaturik.

Horri dagokionez, esan beharra dago ezen garatu gabeko egikaritze unitate batean dagoen lurzati eraikuntzarik gabeko bat denez, hiri lurzoru finkatua dela, antolamenduak elseitzen dion hirigintzako eraikigarritasun haztatua lehendik zegoena baino handiagoa delako.

Bigarrena, lurzatiaren zati bat egikaritze unitatearen esparrutik ateraz UE-2 egikaritze unitatea ber-zedarriztatzea —zeinaren barruan baitago sarturik, gaur egun, 2-4-A katastro erreferentziadun lurzati osoa—, berez, zatitu egiten da egikaritze unitatea, halako moldez non UE2 egikaritze unitate berriaren barruan geratzen den azpi-lurzati berriak, bere neurriak eta eitea

dela-eta, ez baititu betetzen “aurrealdeko mugaleroen gutxieneko neurriak” izeneko atalean ezarritako parametroak, zeinak egun indarrean diren Iruraiz-Gaunako arau subsidiarioetako SUR-1 unitatearen fitxako atalean baitaude ezarrita eta aplikatzekoak baitzaizkio.

Azkenik, memorian adierazten da ezen egikaritze unitatearen ber-zedarriztatzearekin lortu nahi dela 68,30 m²-ko eremu ba ateratzea haren hegoaldean, zeina lurzati mugakideena baita, haietako bat UE-1 egikaritze unitatearen barruan dagoelarik. Bada, UE-2 unitatetik haren zati bat aterata, ezinbestean egin beharko litzateke, halaber, UE-1 unitatearen ber-zedarriztapena, eta, horren ondorioz, hari dagokion fitxaren aldaketa, eta hori ez da hala egin aldaketa honetan.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehen a. Behin betiko onartzea Iruraiz-Gaunako planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldatetaren espediente a, 200. artikulua aldaketari dagokionez; alegia, zenbait hirigintza eta eraikuntza parametro aldatzeko nekazaritzako biltegi buruzkoak, nahiz lurzoruari lotutako nekazaritzako abeltzaintza ustiapenei atxikitako eraikuntzei buruzkoak, nahiz lurzoruari lotu gabeko nekazaritzako ustiapenei atxikitako eraikuntzei buruzkoak, nahiz horien pareko parametroak dituzten gainerako eraikuntza erabilera eta jardueri buruzkoak.

Bigarrena. Ez onartzea behin betiko Iruraiz-Gaunako planeamenduko arau subsidiarioen 6. aldatetaren espediente honi dagokion zatian:

– 199. artikulua aldaketa, zeina autokontsumoko jardueri lotutako eraikuntzak lurzoru urbanizazineko erabilera zilegien artetik ezabatzei buruzkoa baitzen; laugarren oinarrian azaldutakoagatik ezesten da.

– Jauregiko UE2 egikaritze unitatearen aldaketa, bosgarren oinarrian azaldutakoagatik ezesten da.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 19a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO